| ESP. KODEA. CÓD. EXP. | 2022PEBO0180 |
|---|---|

| | |
|---|---|
| **ESPEDIENTEA** EXPEDIENTE | **BEASAINGO UDALA ETA GOIEKI LANKIDETZA HITZARMENA** CONVENIO COLBORACIÓN AYUNTAMINETO DE BEASAIN Y GOIEKI |
| **TITULARRA** TITULAR | GOIEKI |
| **TOKIA** LUGAR | BEASAIN |

**BEASAINGO UDALAREN ETA GOIEKI, S.A. ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BEASAIN-GO KALE NAGUSIKO 40. ZENBAKIAN DAGOEN ZERBITZU ENPRESENTZAKO LAU BULEGOK OSATUTAKO ENPRESA-ZENTRO BAT ESKURA JARTZEKO, ENPRESA-EKIMEN BERRIAK SOR DAITEZEN SUSTATZEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y GOIEKI, S.A. PARA LA PUESTA A DISPOSICIÓN DE UN CENTRO DE EMPRESAS COMPUESTO POR CUATRO OFICINAS DESTINADAS A EMPRESAS DE SERVICIOS UBICADO EN KALE NAGUSIA, 40 DE BEASAIN AL OBJETO DE IMPULSAR LA APARICIÓN DE NUEVAS INICIATIVAS EMPRESARIALES.**

Beasainen bi mila eta hogeitauko otsailaren 23an.

En Beasain a 23 de febrero de dos mil veinticuatro.

AGERTU DIRA

COMPARECEN

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE Alkatea, Beasaingo Udalaren izenean jarduten du, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikuluak ematen dizkion eskumenez arabera.

De una parte, la Alcaldesa Dª LEIRE ARTOLA UGALDE en representación del Ayuntamiento de Beasain, en virtud de las facultades que le otorga el art. 21,1b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Bestetik, IKER GALPARSORO LASA jauna, GOIEKIren izenean eta ordezkaritzan. Egintza honetarako ahalmena du, Ignacio Pagola Villar Ordiziako Notario jaunaren aurrean 2019-12-23an sinatutako eskriturak ematen dio (protokolo zenbaki, 1849).

De otra parte, D. IKER GALPARSORO LASA, en nombre y representación de GOIEKI. Se encuentra facultado para este acto, en virtud de la escritura firmada el 23-12-2019 (nº de protocolo 1849), ante el notario de Ordizia, D. Ignacio Pagola Villar.

ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152

## AURREKARIAK

**I.-** 2016ko maiatzaren 19an, Beasaingo Udalak eta Goierriko Eskualdeko Garapen Agentziak (aurrerantzean, GOIEKI) lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten, bost urterako, enpresa-ekimen berritzaileen sorrera bultzatzeko, zerbitzu aurreratuekin lotuta daudenak edo Beasaini eta/edo Goierriko eskualdeari balio erantsia ematen dietenak; horretarako, Beasaingo Udalak enpresa-zentro txiki bat jarri zuen eskura, Beasaingo Kale Nagusiko 40an dauden zerbitzu-enpresentzako 4 bulegoz osatua.

**II.-** 2024ko otsailaren 8an, GOIEKIk berriro eskatu zuen lankidetza-hitzarmen bat ezartzeko, enpresa-ekimen berriak sustatzen jarraitzeko.

**III.** Goiekiko Inkubategia 1995 urtean jarri zen abian eta orduz geroztik ekintzailetasuna eskualdean ekonomia sustatzeko eta enplegua sortzeko ardatz garrantzitsua izan da.

Bere sorreratik kokapena behar izan duten proiektuengatik apustu egin da eta ondorioz, Ordiziako Maiutz 16 Pabilioian lehen enpresa gunea kokatzea erabaki zuten Goierriko udalek.

Denboraren poderioz eta beharren arabera Goieki egokitzen joan da enpresa gune ezberdinen kudeaketaren bitartez. Horien artean Anezka enpresa gunea.

Hitzarmenean jasotako konpromisoak lortzeko helburuarekin urte hauetan zehar burutu diren ekintzak hainbat izan dira. Baina abiapuntua ekintzaileak eta euren negozio ideiak izan dira.

## ANTECEDENTES

**I.-** Con fecha 19 de mayo del 2016, el Ayuntamiento de Beasain y la Agencia Comarcal de Desarrollo del Goierri (en adelante GOIEKI) firman un convenio de colaboración con una duración de cinco años con la finalidad de impulsar nuevas iniciativas empresariales que sean innovadoras, estén relacionadas con los servicios avanzados y/o ofrezcan un valor añadido a Beasain y/o comarca del Goierri; poniendo para ello el Ayuntamiento de Beasain a disposición un pequeño centro de empresas compuesto por 4 oficinas destinadas a empresas de servicios unbicado en kale Nagusia, 40 de Beasain.

**II.-** Con fecha 8 de febrero de 2024 GOIEKI solicita nuevamente formalizar un convenio de colaboración al objeto de continuar promoviendo nuevas iniciativas empresariales.

**III.-** La Incubadora de GOIEKI se puso en marcha en 1995 y desde entonces el emprendimiento ha sido un eje importante para la promoción económica y la creación de empleo en la comarca.

Desde su creación se ha apostado por proyectos que han requerido de ubicación, por lo que los Ayuntamientos del Goierri decidieron ubicar el primer núcleo empresarial en el Pabellón 16 de Maiutz en Ordizia.

Con el paso del tiempo y en función de las necesidades, GOIEKI se ha ido adaptando a través de la gestión de los diferentes núcleos empresariales. Entre ellos se encuentra el centro empresarial Anezka.

Las acciones llevadas a cabo a lo largo de estos años para la consecución de los compromisos recogidos en el Convenio han sido diversas. Pero el punto de partida han sido los emprendedores y sus ideas de negocio.

Los servicios que ofrece el área de

ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152

Goiekiko ekintzailetza arloak eskaintzen dituen zerbitzuak honakoak dira: informazioa, aholkularitza, bideragarritasun plana, enpresa sorreraeta kokapena.

Prozesuan zehar ekintzailearen beharrak ezagutzen goazen eran proiektuarentzako onuragarriak diren aukerak proposatzen dira. Horien artean, eta beti ere baldintzak betetzen badira, kokapena eskaintzen da enpresa gune aproposenean.

Anezkaren kasuan, urte hauetan 13 jarduera kokatu dira.

Datu hauek kontuan izanik, jarraian, 2016ko ekainetik bulego bakoitzaren erabilera maila zein izan den azalduko dugu:

1. Bulegoa: 63,74%
2. Bulegoa: 70,33%
3. Bulegoa: 90,11%
4. Bulegoa: 63,41%

Batezbestekoa kontuan hartuko bagenu, Anezka bulegoen erabilera maila %71,90koa izan da urte guzti hauetan.

Goiekitik oso ondo baloratzen den datua eta ekimena da, ekintzaileei erantzun bat ematen dion ekintza bat da.

**IV.-** Kontuan hartuta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalari ematen dizkion eskumenak, besteak beste: *Ingurumenaren antolamendu osagarria, sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa eta garapen jasangarria, hiriguneetako kutsadura akustiko, argi eta atmosferikoaren aurkako babesa barne* (17.8 artikulua) eta *erabiltzaileen eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea* (17.11 artikulua), zalantzarik gabe, hitzarmena interes publikokoa da eta Beasaingo eta Goierri eskualdeko biztanleen onerako da.

emprendimiento con superiores son: información, asesoramiento, plan de viabilidad, creación de empresa y ubicación.

A lo largo del proceso vamos conociendo las necesidades del emprendedor para el proyecto y se proponen alternativas beneficiosas. Entre ellas, y siempre si se cumplen, se ofrece la ubicación en la zona más apropiada de la empresa.

En el caso de la lanzadera, en estos años se han situado 13 actividades.

Teniendo en cuenta estos datos, a continuación se expone el grado de utilización de cada oficina desde junio de 2016:

1. Oficina: 63,74%
2. Oficina: 70,33%
3. Oficina: 90,11%
4. Oficina: 63,41%

Si tomamos en cuenta la media, el nivel de utilización de las oficinas de Lanzadera en todos estos años ha sido del 71,90%.

Es un dato muy bien valorado desde GOIEKI. Es una acción que ofrece una respuesta a los emprendedores.

**IV.-** Teniendo en cuenta las competencias que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi otorga al Ayuntamiento, entre otras: la ordenación y gestión del uso de servicios, equipamientos, infraestructuras e instalaciones de titularidad pública. (art. 17, 3) y el desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo (art. 17, 25) y, es indudable que convenio es de interés público y redunda en beneficio de los habitantes de Beasain y de la comarca del Goierri.

ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152

Ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortzen diote, eta lankidetza-hitzarmen hau prestatzen dute honako klausula hauen arabera:

En consecuencia, reconociéndose ambas partes mutua capacidad para contratar y obligarse, elaboran el presente convenio de colaboración de acuerdo a las siguientes,

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

**Lehena**. Objektua: Hitzarmen hau sinatuz, Udalak GOIEKI SAri lagatzen dio Beasaingo Kale Nagusiko 40. zenbakian dauden zerbitzu-enpresentzako lau bulegoren erabilera, enpresa-ekimen berrien agerpena bultzatzeko.

**Primera**. Objeto: Mediante la firma del presente convenio el Ayuntamiento cede el uso de cuatro oficinas destinadas a empresas de servicios ubicadas en Kale Nagusia 40 de Beasain a GOIEKI, S.A. para impulsar la aparición de nuevas iniciativas empresariales.

**Bigarrena**. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

1.- GOIEKI SAren esku lau bulego jartzea, Beasaingo Kale Nagusiko 40. zenbakian kokatutako zerbitzu-enpresentzat, "enpresa-ekimen berrien agerpena bultzatzeko".

2.- Bulegoek argia, ura, telefono-konexioa, Interneterako konexioa, berogailuak eta asegurua (lokalaren edukitzailea eta erantzukizun zibila) izango dituzte. Argi, ur, komunitate eta zergen gastuak Beasaingo Udalak ordainduko ditu.

**Segundo**. Obligaciones del Ayuntamiento de Beasain:

1.- Poner a disposición de GOIEKI, S.A. cuatro oficinas destinadas a empresas de servicios ubicadas en Kale Nagusia 40 de Beasain para “impulsar la aparición de nuevas iniciativas empresariales”.

2.- Las oficinas estárán dotadas de luz, agua, conexión telefónica, conexión a internet, calefactores y seguro (continente del local y responsabilidad civil. Los gastos de luz, agua, comunidad e impuestos correrán a cargo del Ayuntamiento de Beasain.

**Hirugarrena**. GOIEKI, SA enpresaren betebeharrak:

1.- Altzariak, asegurua (edukia), garbiketa-gastuak, alarma, su-itzalgailuak eta funtzionamenduko, jarraipeneko eta koordinazioko beste gastu batzuk ekintzaileekin ezarriko dira, Goieki zentroan eta GOIEKIn kokatutako enpresekin duten harremanaren baldintza berberetan; dena den, konpentsazio ekonomiko horretan ez da alokairuaren figura ezarriko.

**Tercero**. Obligaciones de GOIEKI, S.A.:

1.- Las dotaciones de mobiliario, seguro (contenido), gastos de limpieza, alarma, extintores así como mantenimiento y otros gastos de funcionamiento, seguimiento y coordinación, se establecerán para con los emprendedores en idénticas condiciones a las que presiden la relación de Goieki con las empresas ubicadas en su Centro y GOIEKI se hará cargo de las mismas; ahora bien, nunca estableciendo en esa compensación económica la figura de alquiler.

ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152

**Laugarrena**. Iraupen-epea:

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo hitzarmena azkentzea.

**Bosgarrena**. Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak:

Hitzarmenaren eta alderdi sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, Batzorde bat eratuko da. Kide hauek osatuko dute:

- Udal-erakundearen aldetik, Lurralde Batzordearen ardura duen zinegotzia eta ber iritziaren arabera behar diren udal teknikoa,

- GOIEKI, S.A. enpresaren aldetik, erakundeko zuzendaria.

**Seigarrena**. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzaileren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, ez-betetzea egin duen alderdiari jakinaraziko zaio, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak eta konpromisoak.

Ezarritako epea igarotakoan, ez-betetzeak jarraitzen badu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

**Zazpigarrena**. Hitzarmena suntsiaraztea:

1- Epea amaitzen denean.

**Cuarto**. Plazo de duración:

La duración del convenio será de cuatro años a contar del día siguiente al de su firma.

En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un período de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

**Quinto**. Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control:

Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes, así como para resolver las dudas que puedan surgir en la interpretación del mismo, se constituirá una Comisión compuesta por los siguientes miembros:

- Por parte de la entidad municipal, el concejal responsable de la Comisión de Territorio y técnicos municipales que éste considere conveniente.

- Por parte de GOIEKI, S.A., el director de la entidad.

**Sexto**. Consecuencias del incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos:

En caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguno de los firmantes, se dará traslado a la parte incumplidora para que, en un plazo determinado, cumpla con las obligaciones y compromisos que se consideren incumplidos.

Transcurrido el plazo establecido, si persistiera el incumplimiento, el convenio quedará resuelto.

**Séptimo**. Resolución del Convenio:

1- Al vencimiento del plazo.

ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152

2- Bi alderdiek berariaz hala erabakitzen dutenean.

3.- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzea.

4.- Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzen duen ebazpen judiziala.

Hitzarmenaren helburuak bi aldeentzat onargarriak diren baldintzetan bete direla ulertuko da.

Jarduketak gauzatze-prozesuan badaude, alderdiek, jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordeak proposatuta, abian diren jarduketen jarraipena eta amaiera adostu ahal izango dute, eta epe luzaezina ezarriko dute amaitzeko.

**Zortzigarrena**. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskuduna.

Hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondorioei buruz sor daitezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebatziko dira, eta, halakorik ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena izango da.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

2- Cuando así lo acuerden expresamente ambas partes.

3- Incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes.

4.- Resolución judicial declarando la nulidad del convenio.

El cumplimiento de los objetivos del convenio se entenderá realizado en las condiciones que sean admisibles para ambas partes.

Si hubiera actuaciones en proceso de ejecución, las partes, a propuesta de la comisión de seguimiento, vigilancia y control, podrán acordar el seguimiento y finalización de las actuaciones en curso, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización.

**Octavo**. Naturaleza del convenio y jurisdicción aplicable:

De conformidad con el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, la naturaleza jurídica del presente convenio es administrativa y, en consecuencia, es la jurisdicción contencioso-administrativa la competente.

Los conflictos que pudieran plantearse en relación con las interpretaciones, modificaciones, resoluciones y consecuencias que pudieran derivarse de la aplicación del presente Convenio se resolverán por acuerdo entre las partes, siendo en su defecto competencia de la jurisdicción contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman los comparecientes el presente convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

| | |
|---|---|
| GOIEKI S.A. | Beasaingo Udala |
| Iker Galparsoro Lasa | Leire Artola Ugalde |

EKS | CSV: ESKUf17ccd5c-8ab0-42f3-bc29-ef8f00d7b152
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910